

BESTELAKO XEDAPENAK

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

3369

EBAZPENA, 2025eko uztailaren 15koa, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiarena, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen 2025eko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia argitaratzeko dena.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluak, 2025eko uztailaren 14ko bilkuran, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2025eko ekitaldirako laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen Erabakia hartu du, apirilaren 29ko 93/2025 Dekretuaren bidez onartutako estatutuen 11.j) artikuluen arabera.

Estatutu horietako 14.2.n) artikuluan xedatutakoaren arabera, zuzenbide pribatuko erakunde publiko horretako zuzendari nagusiari dagokio argitaratu daitezen agintzea.

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluaren 2025eko uztailaren 15eko Erabakia, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzen 2025eko ekitaldirako oinarri arautzaileak eta deialdia onartzen dituen. Ebazpen honen eranskinean dago aipatutako erabakia.

Bigarrena.– Jakinaraztea ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango dituela ondorioak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluaren erabaki horrek.

Hirugarrena.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren Administrazio Kontseiluaren erabaki horren aurka berraztertze-errekurtsoa aurkeztu dakioke organo horri berari, hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke zuzenean, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 15a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia,
FRANCISCO PEDRAZA MORENO.

ERANSKINA

ENPLEGUA SUSTATZEKO TOKIKO EKINTZETARAKO LAGUNTZEN 2025EKO EKITALDIRAKO OINARRI ARAUTZAILEAK ETA DEIALDIA.

Tokiko esparrua aproposa da ekoizpen-aukera berriak hautemateko, eta, beraz, enplegu-politikek, haien diseinuan eta kudeaketa-ereduan, kontuan izan behar dute tokiko dimentsioa, eta lurralde bakoitzeko beharretara egokituta egon behar dute. Hori horrela, aukera horiek baliatzen lagunduko duten jarduerak sustatuko dituzte, eta esparru horretan enplegua sortzeko eta enpresa-jarduera bultzatzeko ekimenak landuko, Enpleguari buruzko otsailaren 28ko 3/2023 Legean aurreikusten den eran.

Ildo beretik, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian definitutako lan-merkatuaren eredu berriak, besteak beste, lurralde-orekaren printzipioa du oinarri, enplegu-aukerak eskualde eta udalerrri guztietara irits daitezzen.

Deialdi honetako laguntzak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2025eko ekitaldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan aurreikusita daude. Plan hori bigarren lehendakariorde eta Ekonomia, Lan eta Enplegu sailburuaren 2025eko urtarilaren 3ko Aginduaren bidez onartu zen, eta www.lanbide.euskadi.eus web-orrian argitaratu. Horrenbestez, bete egin da Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 8.1 artikuluan eta Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 6.1 eta 7.1 artikuluetan xedatutakoa. Deialdia 4.4 gako estrategikoan sartzen da (Enpleguaren arloko aukera-berdintasuna beste kolektibo zaurgarri batzuentzat) zehazkiago, bi dirulaguntza-lerrotan:

Tokiko erakundeekin enpleguaren arloan lankidetzan aritzeko pilotua.

Tokiko erakundeen eskaintzen kudeaketa (Tokiko enplegu-proiektuak 2025-2026).

Abenduaren 21eko 15/2023 Legeak, besteak beste, eginkizun hauek eman dizkio Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari: enpleguaren, enplegurako prestakuntzaren eta laneratzearen esparruko politika publikoetan araudi eta plangintza orokorra proposatzea, programak kudeatzea, eta, zehazki, enplegu-politiken tokiko dimentsioarekin zuzenean lotuta, enplegua sortzeko tokiko ekimenei laguntzeko programak sortzea, enpleguaren aldeko tokiko hitzarmenak sustatzeko toki-erakundeekin lankidetzan.

Eginkizun horien jardunean, eta 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategian jasotako helburuak aintzat hartuta, deialdi honen bidez Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bi helburu ditu funtsean: Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-politikaren tokiko dimentsioa indartzea, esku hartzeko eredu malgu bat zehaztuz, tokiko egoera sozial eta ekonomikora egokitua, eta ekoizpen-ingurunearen eta esku hartzen duten eragileen gaineko ezaguera sakonean oinarritua; eta lurraldearen kohesioa sustatzea, tokiko eragileekin helburuak partekatzeko eta konpromisoak eta jarduteko irizpideak zehazteko aukera emango duten akordioen bidez. Alde horretatik, ezin dugu ahaztu langabeziak bortizki jo dituela EAeko gune jakin batzuk.

Lan-merkatuan sartzeko aparteko zailtasunak dituzten gizataldeen artean askok eta askok lortu dute enplegua, eta emaitza on horiek kontuan hartuta, enplegua sustatzeko toki-ekintzak diruz laguntzeko lehenagoko deialdietan (hots, Lanbidek aurreko ekitaldietan onartutako deialdietan), beharrezkoa da beste deialdi bat egitea 2025-2026ko aldirako. Eta horretarako, hemeretzi milioi ehun eta berrogeita zortzi mila bederatziehun eta hogeita hamasei euroko funtsa bideratuko da.

Gainera, deialdiak ezin ditu alde batera utzi lan-merkatuan emakumeen eta gizonen artean dauden diferentziak eta desberdinkeriak. Horrela, EUSTATen 2021eko laugarren hiruhilekoko datuek erakusten duten bezala, emakumezkoen enplegu-tasa ia 5,5 puntu txikiagoa da gizonezkoena baino (emakumezkoen enplegu-tasa % 68,2koa da, eta, gizonezkoena, berriz, % 73,7koa). Tasa horiek erakusten dute desagerrarazi beharreko aldea dagoela lan-esparrura sartzeko eta bertan irauteko aukeretan.

Nahiz eta abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege-dekretuak (lan-erreformarako, enpleguaren egonkortasuna bermatzeko eta lan-merkatua eraldatzeko premiazko neurriei buruzkoak) kontratazio mugagabea orokortzen duen, enplegurako aktibazio-programetara lotutako kontratuen berezitasuna aurreikusten du, kontratu horiek administrazio publikoek, eta, hala badagokio, irabazi-asmorik gabeko erakundeek egin dituztenean eta horien iraupena gehienez ere 12 hilabetekoa denean. Gainera, martxoaren 22ko 5/2022 Errege Lege Dekretuak, jarduera artistikoetan eta jarduera tekniko eta osagarrietan aritzen direnen lan-harreman bereziaren araubidea egokitzen duenak, beste helburu batzuen artean, jasotzen du iraupen mugatuko ad hoc kontratu bat arautzea, berme eta segurtasun juridikoarekin estaliko dituen bai sektorearen berezitasunak bai kontratuen iraupena.

Horregatik guztiagatik, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak proposatuta, zuzenbide pribatuko erakunde publiko horren Administrazio Kontseiluak, 2025eko uztailaren 14ko bilkuran, enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2025eko ekitaldirako laguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia onartu zituen, artikulua hauen arabera:

1. artikulua.– Xedea.

Oinarri hauen helburua da enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako 2025eko ekitaldirako laguntzak arautzea eta deialdia onartzea. Proiektu horiek eragina izan behar dute beren jardun-eremuko lurraldearen garapen sozioekonomikoan eta modernizazioan, eta modu orekatuan eskaini behar dituzte enplegu-aukerak EAEko eskualde guztietan; betiere, 2030erako Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat etorrita eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa beteta.

Deialdi honen azken xedea da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan izena emanda dauden langabeen enplegarritasuna hobetzea.

2. artikulua.– Diruz lagun daitezkeen proiektuak.

1.– Deialdi honen babesean, tokiko enplegu-proiektuak gauzatzeko jarduerak lagun daitezke diruz, deialdi honetako 5. artikuluan aurreikusitako erakunde onuradunek egindakoak eta dagokien esparru geografikoan tokiko enplegua garatzeko helburua dutenak.

Tokiko enplegu-proiektuei udalerriko edo mankomunitate, kuadrilla edo udalerri-talde bateko kide gisa emango zaie dirulaguntza. Horretarako, udalerrien gehiengoak edo taldeko biztanleen gutxienez % 51k adostu beharko dituzte proiektuak, 2024ko urtarrilaren 31n indarren den udal-eroldaren berrikuspenaren arabera (zeina dagokion udalean egongo baita). Gainerakoan, eskabidea egiten duen erakundeak egiaztatu beharko du adostasun hori.

2.– Proiektuek baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Artikulu honetako 4. apartatuan deskribatutako ekintza-motakoak izan behar dute.

b) Ez dute gainditu behar oinarri hauen II. eranskinean udalerri edo eskualde bakoitzerako ezarritako gehieneko aurrekontua.

c) Bere jarduketak (enpleguaren sustapenerako kontratazioak edo toki-erakundeek kontratazioan laguntzeko egindako deialdien oinarrien argitalpena) deialdi hau EHAA-n argitaratu eta hurrengo eguna eta 2025eko abenduaren 31 bitartean hasiko dira, eta bukatu, berriz, 2026ko ekainaren 30ean, beranduenez.

Enplegua sustatzeko proiektuetan (1. mota), beren ezaugarriak direla-eta zenbait fasetan egin behar badira, aurreko paragrafoan ezarritakoa, jardueren hasierari buruzkoa, aplikatuko da derrigorrez hasierako faserako, eta ondorengo faseen kontratazioak 2025eko abenduaren 31ren ostean egin ahal izango dira, baldin eta hala justifikatzen badu eskabidea egiten duen erakundeak eta horretarako baimena ematen badu Lanbidek, dirulaguntza emateko ebazpenean.

3.– Proiektu jakin batzuek ezin izango dute deialdi honetako laguntzarik jaso, baldin eta zerbitzuen esparruan edo Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatutako enplegu-politika aktiboak gauzatzean sortzen diren programen esparruan gauza badaitezke.

Era berean, dirulaguntzetatik kanpo geratuko dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren edozein deialditan diruz lagundutako jardueri lotuta gauza daitezkeen kontratuak, edo deialdi horien barruan zuzenean diruz lagunduak izan direnak.

4.– Hori horrela, deialdi honetako dirulaguntzaren bat jaso ahal izango dute honako ekintza hauetako bat gauzatzen duten ekimenek:

4.1.– Enpleguaren sustapena (1. Mota).

4.1.1.– Enplegua sustatzeko ekintzat hartzen dira egiten diren kontratazioak, baldin eta haien helburua langabeen enplegarritasuna handitzea bada, beren kualifikazioa, gaitasun pertsonalak edo motibazioa sustatuko dituen aldi baterako lan-esperientzia baten bitartez.

Esandako kontratazioak tokian-tokian sustatuko dira, eta toki-erakundeek edo haien mendeko erakundeek egingo dituzte zuzenean; bestela, zailtasun bereziak dituzten pertsonak gizarteratzen eta laneratzen diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, betiere EAEko hirugarren sektore sozialeko erakundeen erroldan izena emanda badaude (Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legean arautua), eta haiekin proiektua gauzatzea hitzartzen bada edota proiektua kontratu bidez haiei esleitzen bazaie.

Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2003 Lege Orokorraren 31. artikuluko 3. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, hirugarrenekin hitzartutako jarduera, zeina % 100ekoa izan ahal izango baita, dirulaguntzaren zenbatekoaren ehuneko 20tik gorakoa bada eta zenbateko hori 60.000 eurotik gorakoa bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak baimendu egin beharko du aurreko paragrafoan aipatutako hitzarmena edo kontratua, izenpetu baino lehen.

Edonola ere, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak kudeatuko ditu enplegu-eskaintzak.

4.1.2.– Mota horretako kontratazioek, oro har, honako betekizun hauek izango dituzte:

a) Onura publikoko edo interes sozialeko jardueren alorrean egin behar dira, toki-eremuan.

b) Kontratazio horien bidez ez dira ordeztu behar entitateren baten egiturazko lana egiten duten langileak.

c) Toki-erakundeek ezingo dute kontratatu erakunde berak aurretik kontratatu dituen pertsonak 2024ko ekitaldirako enplegu-sustapeneko toki-ekintzetarako laguntzen deialdietan edo 2024ko ekitaldirako EAEko EGF Plus 2021-2027 programa operatiboaren esparruan toki-erakundeek gazteak kontratatzekeko laguntzen deialdietan. Hala dela egiaztatu beharko du erakunde kontratatzaileak, eta erantzukizunpeko adierazpen bidez akreditatuko du.

d) Kontratuek hiru hilabete iraungo dute, eta enplegu-politika aktiboko programei loturiko kontratuen bidez formalizatuko dira (405/505 kontratu-kodea).

Diruz lagunduko da artikulua honen 2.c) puntuan ezarritako epeetan egiten den kontratazio-aldia, baldin eta bolada horretan betetzen bada kontratuen gutxienerako iraupena, apartatu honetan ezarrita dagoena, kontratua 2026ko ekainaren 30aren ondoren buka baliteke ere.

e) Kontratuak lanaldi osokoak edo partzialekoak izan daitezke, baina lanaldiaren % 50ekoak izan behar dute gutxienez.

f) Kontratututako pertsonak langabetuak izan beharko dira, eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan lan-eskatzaile gisa altan egon, bai hautagaitza dena delako enplegu-eskaintzatara bidaltzen duten momentuan bai kontratua hasteko egunaren biharamunean.

g) Kontratututako pertsona dirulaguntzaren eskarian aipatzen den eremu geografikoan bizi beharko da.

4.1.3.– Kontratuak Contrat@ aplikazioaren bidez jakinarazi beharko dira, kontratua hasi eta hamar egun balioduneko epean, eta «LPE-2025» identifikazioa izan beharko dute, aplikazioan ezarritakoaren arabera.

4.2.– Kontrataziorako laguntzak (2. Mota).

4.2.1.– Laguntza horien helburua babes ekonomikoa ematea da Lanbiden enplegu-eskatzaile gisa izena emandako langabeak tokiko enpresek merkatu arruntean kontratatzea errazteko. Horretarako, hainbat jarduera abiarazi eta gauzatuko dituzte tokiko erakundeek beraiek nahiz beren mendeko erakundeek.

Ondorio horietarako, dagokion toki-erakundearen lurralde-esparruan lantokia eta jarduera ekonomikoa duten izaera pribatuko pertsona fisiko edo juridikoak hartuko dira tokiko enpresatzat.

Aipatutako kontratazioek ezaugarri hauek eduki beharko dituzte:

a) Kontratu mugagabeen modalitatearen bidez formalizatu ahal izango dira kontratuak, bai eta ikuskizun publikoetako artisten eta teknikarien eta laguntzaileen iraupen mugatuko kontratuen bidez ere; halakoetan, gutxienerako iraupena 3 hilabetekoa izango da.

b) Kontratuak lanaldi osokoak edo partzialekoak izan daitezke, baina lanaldiaren % 50ekoak izan behar dute gutxienez.

c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan lan-eskatzaile gisa izena emanda eta alta-egoeran egotea, eta kontratua hasteko bezperan langabea izatea.

d) Kontratututako pertsonak dirulaguntzaren eskabidean aipatzen den eremu geografikoan bizi behar du.

e) Toki-erakundeak dirulaguntza ebatzen duenean egin beharko ditu kontratazioak.

4.2.2.– Diruz laguntzeko modukotzat hartzeko, kontratazio horiek enplegu-sorrera garbia ekarri behar dute berekin, diruz lagunduko den kontratuaren xede den langilea lanean hasi aurre-aurreko 6 hiletan enpresak batez beste duen langile-kopuruari begira. Kontratu berriaren ondorioz, esandako batezbestekoak gora egin beharko du kontratazio-egunean. Eskakizun hori betetzeko, ez dira kontuan hartuko arrazoi hauengatik amaitutako kontratuak: bidezko diziplinazko kaleratzea, dimisioa, heriotza, desgaitasuna, adinagatik erretiroa hartzea, lanaldia borondatez murriztea, ezintasun iraunkor osoa, absolutua edo baliaezintasun handia. Toki-erakundeak egiaztatu eta ziurtatu beharko du hori.

4.2.3.– Ez dira diruz lagunduko:

– Honako hauek kontratatzea: enpresaburuaren edo enpresaren kontrola duen inoren ezkontidea, oinordekoak eta gainerako senideak, odol- edo ezkontza-ahaidetasuneko bigarren mailaraino, edo sozietatearen izaera juridikoa osatzen duten enpresetako administrazio-organoetako edo zuzendaritzako kideenak.

– Enpresa berak kontratatzea langile bera, baldin eta aurreko deialdietan dirulaguntza jaso badu.

4.2.4.– Dirulaguntza horiek emateko, toki-erakundeek ezarritako oinarri arautzaileetan bermatuta egongo dira publikotasunaren, lehiaren eta objektibotasunaren printzipioak, eta jasota egongo dira aurreko zenbakietan zehaztutako betekizunak eta baldintzak.

Halaber, dirulaguntza justifikatzeko behar den dokumentazioa (baldintzak bete direla egiaztatzeko, esaterako diruz lagundutako epean zehar kontratatutako pertsona lanean mantentzeko gastuak, soldata-kostuak eta Gizarte Segurantzakoak) aurkez dezala eskatu beharko dio toki-erakundeak enpresa kontratatzaileari, baita zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituela egiaztatzeko ere.

Toki-erakundeek oinarri arautzaileetan zehazten diren dirulaguntzen zenbatekoak deialdi honen 4.b) artikuluan jasotako berak izango dira.

4.2.5.– Oinarri arautzaileei publizitatea eman baino lehen, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiari igorri behar zaizkio, eta hasierarako haren baimena eskuratu.

3. artikulua.– Laguntzen gehieneko zenbatekoen banaketa eta aurrekontu-zuzkidura.

1.– Deialdi honetan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak 19.148.936 eurokoak dira, horietatik 10.148.936 euro Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren 2025eko aurrekontuko ordainketa-kreditukoak, eta 9.000.000 euro 2026ko konpromiso-kreditukoak.

Eman beharreko laguntzen guztizko zenbatekoak ez du gaindituko adierazitako zenbatekoa.

2.– Zenbateko hori eskualdeen eta udalerrien artean banatuko da, 2025eko otsailean langabezia dauden biztanleen arabera, eskualde bakoitzeko gutxienez 75.000 euroko zenbatekoan.

3.– Lurralde-esparru bakoitzari dagokion gehieneko dirulaguntzen aurrekontua deialdi honen II. eranskinean ezarritakoaren arabera banatuko da.

4.– Aurreko paragrafoan ezarritakoa kaltetu gabe, lurralde bateko proiektuetarako emango den dirulaguntzaren zenbatekoa ez bada heltzen esleitutako gehieneko aurrekontura, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak beste lurralde-eremu batzuetako proiektuak finantzatzeko erabili ahal izango ditu sobera dauden funtsak, proiektu horiek ezin izan badira onartutako aurrekontuaren gehieneko % 100eraino finantzatu. Soberako funtsak 7.2 artikulua xedatutakoaren arabera banatuko dira.

4. artikulua.– Laguntzaren zenbatekoa eta diruz lagundu daitezkeen gastuak.

Emango diren laguntzen gehieneko zenbatekoa eta proiektuen mota bakoitzean diruz lagundu daitezkeen gastuak hauek dira:

a) Enplegua sustatzeko ekintzak (1. mota).

Lan-kontratu bakoitzeko 12.500 euroko gehieneko laguntza.

Dirulaguntza horien bidez ordainduko da hainbat gastu, tartean, kontratatutako pertsonen soldata-kostuak, kontzeptu guztien zioz gizarte-segurantzarako egindako kotizazioa barne dela (toki-erakundearen edo enpresa kontratatzailearen kargura), 6 hileko kontratazioaren gehieneko muga izanik. Ondorioz, dirulaguntzaren zenbatekoa, guztira, ezin izango da izan kostu horien % 100 baino handiagoa.

b) Kontrataziorako laguntzak (2. mota).

b.1.– 8.000 euroko laguntza, lanaldi osoan lan egindako kontratu bakoitzeko. Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren proportzionala izango da.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 75 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.

b.2.– Ekitaldi publikoetako artista eta langile tekniko eta osagarrientzako iraupen mugatuko eta lanaldi osoko hiru hileko lan-kontratu bakoitzeko, 3.000 euroko laguntza; lanaldi osoko sei hileko edo gehiagoko lan-kontratu bakoitzeko, 6.000 eurokoa. Denbora partzialeko kontratuen edo hiru eta sei hilabete bitartekoen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren edo/eta lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 75 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.

b.3.– Kolektibo hauetako pertsonak kontratatzea:

– DSBE/BGDSaren titullarrak edo onuradunak.

– 35 urtetik beherako pertsonak.

– Luzaroko langabeak. Iraupen luzeko langabetutzat jotzen dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoan edo beste enplegu-zerbitzu publiko batzuetan lan-eskatzaille gisa izena emanda dauden eta iraupen luzekoak diren langabetuak, kontratazioaren data baino lehenagoko 540 egunetan gutxienez 360 egunez egoera horretan egon badira.

– 55 urtetik gorako pertsonak.

Laguntzaren zenbatekoa 10.000 eurokoa izango da lanaldi osoko kontratu mugagabe bakoitzeko eta 7.500 eurokoa iraupen mugatuko kontratu bakoitzeko, sei hilabeteko epean edo luzaroagoan lanaldi osoan ikuskizun publikoetan artista, teknikari edo laguntzaile direnentzat. Denbora partzialeko kontratuen edo hiru eta sei hilabete bitartekoen kasuan, dirulaguntza lanaldiaren edo lan egindako denboraren proportzionala izango da.

Lanaldi partzialeko kontratuen kasuan, dirulaguntza lan egindako lanaldiaren proportzionala izango da. Laguntzaren amaierako zenbatekoak ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 100 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.

b.4.– Dirulaguntzen zenbateko guztiak % 10 haziko dira, kontratuak emakumeekin egiten direnean. Dirulaguntzaren amaierako zenbatekoak, igoera horiek aplikatzean, ez dira izango enpresa kontratatzaileak kontratatutako pertsonen urteko soldata-kostuen % 100 baino handiagoak, gizarte-segurantzara kontzeptu guztien zioz egindako kotizazioa barne.

b.5.– Toki-erakundeak egiaztatu eta ziurtatuko du kontratu mugagabeen jarduera jarraituaren iraupena gutxienez 12 hilabetekoa dela.

5. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Deialdi honetako laguntzen onuradun izan daitezke, aldez aurretik berariazko eskaera egin ondoren, Euskal Autonomia Erkidegoko udalerriak, udalerri-taldeak, kuadrillak edo mankomunitateak, bai eta horien mendeko toki-garapeneko agentziak ere, baldin eta nortasun juridikoa badute.

2.– Nortasun juridikorik gabeko udalerri-taldeak direnean, eskabidean eta dirulaguntza emateko ebazpenean berariaz jaso beharko dira taldeko kide bakoitzak proiektua egikaritzeko hartzen dituen konpromisoak, bai eta bakoitzak aplikatuko duen dirulaguntzaren zenbatekoa ere, horiek ere onuraduntzat hartuko baitira. Kasu guztietan, taldeko ahalzun bat izendatu beharko dute, eta onuraduna den aldetik taldeari dagozkion betebeharrak betetzeko behar adina ahalorde emango diote ahalzun horri. Ezin izango da taldea desegin Euskadiko Ogasun Nagusiaren eskubideen preskripzio-epea, legez aurreikusitakoa, igaro arte.

3.– Ez dira dirulaguntzen onuradun izango bi erakunde desberdin, proiektuak udalerri berean edo beretan garatzeko badira. Dirulaguntza, lehentasunez, mankomunitateak, kuadrillak, udalerri-taldeen edo udalerriek berek eskatu ahal izango dute, edo toki-garapenerako agentziak. Eskabidea toki-garapenerako agentziak aurkezten badu, agentzia horrek berak proiektuak betearazteaz gain, egiaztatu egin beharko du proiektu horien eragina jasotzen duten udalerrien adostasuna.

4.– Ezingo dira onuradun izan honako egoera hauetako batean diren entitateak:

a) Epai bidez kondenaturik egotea delitu hauetakoren bat egiteagatik: prebrikazioa, funtzionario-eroskeria, ondasun publikoak bidegabe erabiltzea, eragimen-trafikoa, iruzurrak eta legearen aurkako ordainarazpenak edo hirigintza-delituak.

b) Epai edo administrazio-ebazpen irmo batek kondenaturik edo zehaturik egotea, eta, horren ondorioz, dirulaguntza edo laguntza publikoak lortzeko aukera galdu izana, kondena- edo zehapen-epea igaro gabe egonik.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko arrazoiak sorrarazi eta haien errudun deklaratu izana.

d) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez izatea.

e) Dirulaguntzen arloko itzulketa-betebeharrak egunean ez izatea, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan ezarritakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA).

f) Zehapen administratibo edo penalak izatea sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik –zehazki, Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistatik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua edo Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarriko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa–, eta zehapen-epea igaro ez izana.

g) Dirulaguntzak edo bestelako laguntzak jasotzea eragozten dion legezko kausak izatea, hauek barne:

– Ez izatea berdintasun-planik indarrean, baldin eta Estatuaren araudiaren arabera horretara behartuta dagoen enpresa bada.

– Ez edukitzea ezarrita neurririk sexu-jazarpena, sexuan oinarritutako jazarpena edota sexu-indarkeriak prebenitu eta borrokatzeko, emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan Estatuak ezarrita dituen legeen arabera, 50 langile baino gehiago dituzten enpresen kasuan.

– LGBTIfobia egitea, bultzatzea edo sustatzea, bihurketa-terapiak sustatzea edo egitea barne.

h) Zehatuta egotea, administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, arau-hauste astun edo oso astun bat egiteagatik, Hondakinak eta lurzoru kutsatuak arautu eta ekonomia zirkularra bultzatzeari buruzko apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioari buruzko abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

i) Ez betetzea desgaitasuna dutenentzat lanpostuak gordetzeko lege ezarritako kuota, edo, bestela, hori betetzeko ordezkari neurririk hartu gabe egotea.

5.– Artikulu honetan aurreikusitako betekizunak, 4. apartatuko d) letran jasotakoa izan ezik –hori Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak egiaztatuko du–, eskaera-formularioaren parte den erantzukizunpeko adierazpenaren bidez egiaztatuko dira.

6. artikulua.– Eskabideak, dokumentazioa eta horiek aurkezteko epea.

1.– Dirulaguntza-eskaerak bide elektronikotik aurkeztu eta izapidetuko dira.

Izapidetze-jarraibideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta ereduak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa egongo dira eskuragarri, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/1009216>

Eskabidea aurkeztu ondorengo izapideak, jakinarazpenak barne, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoko «Nire karpeta» atalaren bidez egingo dira: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>

Izapidetze elektronikoa ordezkari baten bidez ere egin ahal izango da, eta, horretarako, ordezkaritza hori Eusko Jaurlaritzaren Ahalordeen Erregistro Elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa identifikaziorako eta sinadura elektronikorako onartzen diren bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

2.– Eskabidea proiektua sustatzen duen udalerriari dagokion mankomunitateak, kuadrillak edo udalerri-taldearen ahaldunak aurkeztu ahal izango du, edo zuzenean udalerriak berak. Inola ere ezin izango da jarduera bera eskabide batean baino gehiagotan sartu.

Nortasun juridikorik gabeko udalerri-taldearen kasuan, haien ahaldunak aurkeztuko du eskabidea.

3.– Eskabidearekin batera, dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

a) Eskualde-mailako eta tokiko garapen ekonomikorako eta enplegua sortzeko proiektuen memoria tekniko deskribatzailea. Memoriak deialdiaren eskakizunak betetzen direla egiaztatzeko aski informazio eskaini beharko du, eskabidean zehaztutako moduan. Proiektu baterako baino gehiagotarako eskatzen bada dirulaguntza, haien artean lehentasun-hurrenkera bat ezarri beharko da.

Enplegua sustatzeko proiektuaren bat (1. mota) hainbat fasetan egin behar bada eta faseren batean kontratazioak egin behar badira 2025eko abenduaren 31 baino lehen, horretarako baimena lortu ezean kontratua gauzatzea ezinezkoa dela egiaztatu beharko da.

Nortasun juridikorik gabeko udalerri-taldeen kasuan, aipatu beharko da zer udalerri konprometitzen diren proiektua betearazteko.

Edonola ere, memorian berariaz aipatu beharko da 2. artikuluko 4.1.2 apartatuko a) eta b) hizkietan ezarritakoa betetzen dela.

b) Memoria ekonomikoa, proiektua gauzatzearekin lotutako gastuei eta horren bideragarritasunari buruzko datuak jasoko dituen.

c) Kontratazioen aurreikuspena, sexuen arabera banakatutako datuak jasota, eta, kasuan-kasuan, memoria labur bat, aurkeztutako proiektuan sartutako genero-ikuspegiari buruzkoa.

4.– Eskabideak ez badaude behar bezala beteta, edo ez bada aurreko zenbakian adierazitako dokumentazio guztia aurkeztu horrekin batera, erakundeari hamar eguneko epea emango zaio akatsa zuzen dezan edo aginduzko dokumentuak aurkez ditzan. Gainera, jakinaraziko zaio hori egiten ez badu haren eskabideari uko egin diola ulertuko dela, eta Administrazioak eskabide horri buruzko ebazpena eman beharko du espresuki, bai eta jakinarazi ere.

5.– Eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2025eko irailaren 12an amaituko da.

7. artikulua.– Kudeaketarako organo eskudunak, emateko prozedura, epeak, errekursoak eta publizitatea.

1.– Prozedura kudeatzeko organo eskuduna Enpresen eta Ekintzailetzaren zuzendaria izango da, eta prozedura ebazteko organo eskuduna Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusia.

2.– Laguntza emateko prozedura lehiaketaz besteko norgehiagoka da. Eskabideak aurkezteko epea amaitutakoan eta aurkeztutako proiektuek deialdi honetako ezaugarriak eta eskakizunak betetzen dituztela egiaztatutakoan, lurralde-eremu bakoitzari esleitutako aurrekontuak banatuko dira, eta proiektu bakoitzerako laguntzak emango dira, eskabidean ezarritako proiektuen lehentasun-hurrenkera aintzat hartuta, esleitutako gehieneko aurrekontua agortu arte.

Lurralde-eremuren batean soberako funtsik izanez gero, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak beste lurralde-eremu batzuetako proiektuetarako erabili ahal izango ditu, bat etorritik deialdi honen 3. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoarekin. Hala bada, soberakina beste proiektu batzuk finantzatzeko erabiliko da, kontuan hartuta, handienetik txikienera, zenbateko langabezia-tasa erregistratu duten sustapeneko udalerriek 2024ko urtarrilean, eta, gehien jota, erakunde eskatzaile bakoitzeko proiektu baterako.

Ebazteko eta jakinarazteko gehieneko epea sei hilekoa izango da horretarako eskabidea aurkeztu den egunetik aurrera. Epe hori igarotakoan, ez bada ebazpenik eman espresuki, ulertuko da dirulaguntzaren eskabidea ezetsi egin dela.

3.– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpenek amaiera emango diote administrazio-bideari, eta, horien aurka, aukerako berraztertze errekursoa aurkez dakioke ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekursoa aurkez daiteke zuzenean administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Publikotasun-printzipioa betetzeko, eta emakida-ebazpenak espresuki eta banaka jakinarazteaz gainera, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen bidez, arau honen babesean emandako dirulaguntzen onuradun diren erakundeen zerrenda, eta zer zenbateko jasoko dituzten ere adieraziko da. Halaber, erakunde bati emandako dirulaguntza aldatzea erabaki bada, hori ere adieraziko da.

8. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzeko modua.

1.– Deialdi honetan aurreikusitakoaren arabera emandako laguntzak bi zatitan ordainduko dira, modu honetara:

a) Lehenik, % 53 ordainduko da, ebazpena igorri ostean, 2025eko aurrekontuaren kontura.

b) Bigarrenik, gainerako % 47a ordainduko da, edo justifikaziotik ateratzen den kopurua, proiektua amaitu ostean eta gastuak justifikatu ostean, hurrengo artikuluan adierazitako moduan, 2026. urteko aurrekontuaren kontura.

2.– Dirulaguntza emateko ebazpena eman ondoren ordainduko du administrazioak, entitate onuradunak horretarako adierazitako banku-kontuan.

Entitateak ez badu Lanbideren ordainketarik jaso, edo bankuko datuak aldatu nahi baditu, hirugarrenaren fitxa bete beharko du, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/servicios/1009216>

3.– Ordainketa bakoitza egiteko unean, erakunde onuradunak egunean izan beharko ditu zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, bai eta dirulaguntzak itzultzeari dagozkionak ere, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren 2023ko otsailaren 13ko Aginduaren 4. artikuluan aurreikusitakoaren arabera (2023ko otsailaren 17ko EHAA).

9. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa eta epea.

1.– Dirulaguntzen onuradun diren toki-erakundeak honako agiri hauek aurkeztu beharko ditu, proiektua amaitzen den egunetik 2026ko azaroaren 30era arte (biak barne):

a) Jardueraren amaierako memoria, alderdi hauek behintzat identifikatuta:

– Gauzatutako ekintzen deskribapena.

– Kontratututako pertsonak identifikatuko dira, eta honako datu hauek adieraziko dira: zer lanaldi egin duten, zer kolektibotakoak diren eta haien kontratuak egiaz zer iraupen izan duen. Tokiko enpresek egindako lan-kontratu mugagabeen etengabeko jarduera 12 hilabetera egiaztatu behar da (2. mota). Egiaztapen hori aurkezteko azken eguna 2027ko urtarrilaren 29a izango da.

– Pertsona hauei buruzko informazioa, sexuaren arabera bereizita: dirulaguntzen proiektuetarako kontratatutako langabeak; erakunde onuradunen titularrak eta haien langileak; eta enplegua sustatzeko jarduketak (1. mota) gauzatzen dituzten erakundeetako langileak, martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.3.d) artikuluan xedatutakoa betez (1/2023 Legegintzako Dekretua, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena).

b) Enplegua sustatzeko jarduketetarako (1. mota), agiri bidez egiaztatuko da emakume batek hartu duela parte kontratatuak hautatzeko prozesuan, edo justifikatu beharko da ezin izan duela, esku-hartzailearen ziurtagiriaren bidez edo partaidetza-foroaren erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.

c) Enplegua sustatzeko proiektuen kasuan (1. mota), irabazi asmorik gabeko erakundeek egin badituzte, honako hauek aurkeztu beharko dira:

I.– Negozio juridikoa egiaztatzen duen hitzarmenaren edo kontratuaren kopia, proiektua egikaritzean beteko dena.

II.– Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeen erroldako inskripzioaren ziurtagiria.

III.– Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean daudelako egiazttagiria.

d) Erakundearen ordezkariaren adierazpena, kontratazioek 2. artikuluko 4.1.2.c) apartatuan araututako baztertze-kausarik ez dutela azaltzen duena.

e) Toki-erakunde onuradunaren idazkariaren/esku-hartzailearen egiazttagiria, aipatutako ekintzek eragindako gastuak eta egiaz ordaindutakoak justifikatuta.

2.– Gastutzat hartuko dira, 4. artikuluan jarduketara mota bakoitzean ezarritako baldintzen arabera, diruz lagundutako jarduketari loturiko guztiak, baldin eta aurreko paragrafoetan zehaztutako egiaztatze-epea amaitu aurretik egiaz ordaindu badira.

3.– Dokumentazioa aurreikusiriko epean aurkeztzen ez bada, edo aurkezturiko dokumentaziotik ondorioztatzen bada ordainduriko dirulaguntzaren zenbatekoa handiagoa dela diruz lagundutako jarduketak gauzatzeagatik sortzen diren eta diruz lagun daitezkeen gastuen kostua baino, itzulketa-prozedura abiaraziko da, 15. artikuluan aurreikusiriko prozedurarekin bat etorrita.

4.– Diruz lagundutako lan-kontratuak dirulaguntzaren epealdia amaitu aurretik iraungitzen badira (1. eta 2. motak) edo aurreneko hamabi hilabeteetan tokiko enpresek egindako kontratu mugagabeen kasuan (2. mota), itzuli egin beharko da emandako dirulaguntza, eta dagokion prozedura izapidetuko da, 13. eta 14. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz. Nolanahi ere, kontratua iraungitzeko arrazoia probaldia ez gainditzea, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna izan bada, lan-kontratuak iraun duenaren proportzioan murriztuko da dirulaguntzaren zenbatekoa.

Aukera egongo da kontratua azkendu zaion pertsona ordezteko, baldin eta arrazoia izan bada probaldiak ez gainditzea, langileak lana bere borondatez uztea, bidezkotzat jotako kaleratzea edo kontratatutako pertsonaren heriotza edo baliaezintasuna. Kontratatutakoa ordezteko gehieneko epea 15 egunekoa izango da, gizarte-segurantzaren baja eman eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita, eta, haren ordeztze, deialdi honetan kontratazioa egiteko ezarritako eskakizunak betetzen dituen beste bat hartu ahal izango da. Halakoetan, kontratazio-aldien batura, gutxienez, hasierako kontratuarena izango da.

Halaber, kontratatutako pertsonak aldi baterako ezintasunagatik baja hartzen duenean, ordeztu ahal izango da bajak irauten duen artean. Gehienez 15 eguneko epean, gizarte-segurantzaren baja eman eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, egingo da ordezkapena, eta deialdi honen barruan kontratatu ahal izateko baldintzak betetzen dituen pertsona batek egingo du.

Kontratatutakoak ordezteagatik ez da, inolaz ere, emandako dirulaguntza handituko.

5.– Nortasun juridikorik gabeko udalerri-taldeetako kideek nahitaez bete beharko dituzte beren izenean egindako jarduerak justifikatzeko baldintzak.

10. artikulua.– Erakunde onuradunen betebeharrak.

Erakunde onuradunaren betebeharrak izango dira Dirulaguntzen araubidea erregulatzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarritakoak, eta, bereziki, honako hauek:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman dela adierazten duen jakinarazpena jaso eta 3 eguneko epean onuradunak berariaz uko egiten ez badio, laguntza onartutzat emango da.

b) Laguntza emateko eta hura baliatzeko bide eman duten betebeharrak eta baldintzak betetzen dituztela eta jarduera gauzatzen dutela frogatzea.

c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren, Lan eta Enplegu Sailaren, Ekonomia eta Ogasun Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren egiaztatze-jardunei eta kontrol-jardunei men egitea.

d) Beste administrazio edo erakunde publiko edo pribaturen batek xede bererako emandako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideren bat jasoz gero, horren berri jakinaraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari.

e) Dirulaguntza ematerakoan kontuan hartutako egoeraren bat, objektiboa edo subjektiboa, aldatu bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari jakinaraztea.

f) Diruz lagundutako jardueren xedean edo izaeran nabarmen eragiten duen ezer gertatuz gero, horren berri ematea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari, eta jarduera horiek egiaztatze, kontrolatzeko eta haien jarraipena egiteko prozeduretan laguntzea.

g) Jakinaraztea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak eta haren organismo autonomoek, zuzenbide pribatuko erakunde publikoek eta sozietate publikoek emandako laguntzen edo dirulaguntzen esparruan hasi eta oraindik izapidetzen ari den edozein itzultze- edo zehapen-prozedura.

h) Emakumeen eta gizonen tratu- eta aukera-berdintasunaren arloko betebeharrak:

– Bermatzea emakumeen eta gizonen tratu- edo aukera-berdintasunaren eta bereizkeriarik ezaren printzipioa aplikatzen dela lanpostuei loturiko hautaprobetan, elkarriketetan eta hautaketetan, genero-alborapenik gabe.

– Enplegua sustatzeko ekintzei dagokienez (1. mota), hautagaiak aukeratzeko erabakiak hartzeko gaietan, gutxienez emakume batek egon beharko du epaimahaian. Ezinezkoa bada, egiaztagiria aurkeztu beharko da.

– Dokumentu, publizitate, irudi eta material guztietan sexismorik gabeko hizkera erabili behar da, emakumeen kontrako bereizkeria edo estereotipo sexistak bultzatzen dituzten irudiak saihestu behar dira, eta berdintasunaren aldeko irudiak sustatu behar dira, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna eta rol eta genero-identitate pluraltasuna sustatzen dutenak.

i) Espresuki adieraztea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren babesletza jaso dutela deialdi honen esparruan finantzatutako jarduera guztietan, horiek hedatzerakoan, edo, hala badagokio, argitaratzerakoan. Horretarako, honako baldintza hauek beteko dituzte:

– Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak ikuskatu egingo ditu ekintza horiek guztiak, eta dibulgazio publikoko ekitaldi guztien berri eman beharko zaio, eta horietara gonbidatu, ekitaldi horiek egin aurretik. Entitate onuradunak ekintza horien berri ematen ez badu, 15 eguneko epea

emango zaio obligazio hori betetzeko neurriak har ditzan. Baldintza hori ez betetzeak berekin ekar dezake emandako laguntzaren % 10 itzuli beharra, edo laguntza osoa, jokabide hori errepikatu bada. Ekintza edo jakinarazpen guztietan agertu beharko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren identifikazio grafikoa.

– Erakunde onuradunek berariazko ekintzak gauzatu beharko dituzte onuradunak eta herritarrak, oro har, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren ekarpenaz ohar daitezen.

11. artikulua.– Beste dirulaguntza edo laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

1.– Deialdi honetan jasotako enplegua sustatzeko proiektuen (1. mota) dirulaguntzak bateratu daitezke kontzeptu eta xede bererako administrazio edo erakunde publiko edo pribatuek emandako beste edozein motatako dirulaguntza edo laguntzekin; hala ere, bestelako finantzaketa-iturrien bidez eskuratutako laguntza edo baliabideen guztirako zenbatekoak ezin izango du gainditu diruz lagunduko diren jardueren benetako kostua. Kostu hori gaindituz gero, dirulaguntzaren zenbatekoa murriztuko da.

Toki-erakundeek edo horien mendeko erakundeek ez badituzte zuzenean egiten kontratazioak, laguntzak ezin izango dira bateratu deialdi honetako gainerako dirulaguntzekin.

2.– Kontrataziorako laguntzak (2. mota) bateraezinak izango dira kontzeptu eta helburu berberetarako beste administrazio batzuek edo beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako dirulaguntza edo laguntza ororekin, salbu eta Gizarte Segurantzak emandako hobariekin eta 52 urtetik gorako langabeak kontratatzeagatiko onurekin. Onura horiek langabeziatik babesteko sistema erreformatzeko eta lan-aukerak areagotzeko premiazko neurriei buruzko abenduaren 12ko 45/2002 Legearen bosgarren xedapen iragankorraren 4. zenbakian ezarri dira enpresentzat.

12. artikulua.– Dirulaguntza aldatzea.

1.– Dirulaguntzak ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, eta, hala badagokio, xede bererako beste dirulaguntza edo laguntza bat eskuratu eta, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak emandakoarekin batera, onartutako guztirako kostua gainditzen bada, esleitutako dirulaguntza aldatuko da hori emateko deialdi honetan ezarritako irizpideei eta mugei jarraikiz; betiere, dirulaguntzaren onuradun izateko ezarritako gutxieneko eskakizunak beteta.

2.– Emandako dirulaguntza aldatzekotan:

- a) Ezingo du izan laguntza handiagoa emateko.
- b) Ezingo du izan erakunde onuradunak hala nahi duelako.
- c) Ez zaie kalterik egingo hirugarrenen eskubideei.

3.– Baldintzen aldaketa horren ondorioz dirulaguntza osoa edo zati bat itzuli behar bada, itzultzeko prozedura hasiko da.

13. artikulua.– Betebeharrak ez betetzea eta itzultzeko arrazoiak.

Deialdi honetako dirulaguntzen entitate onuradunek ez badituzte betetzen Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan ezarri zaizkien betebeharrak, edo deialdi honetan berariaz ezarri zaizkienak, edo Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan adierazitako dirulaguntza itzultzeko kasuren batean sartzen badira, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak, dagokion ebazpenaren bidez, erabakiko du jaso gabe dauden zenbatekoak jasotzeko eskubidea galdu dela eta, hala badagokio, Lanbide-Euskal Enplegu

Zerbitzu Publikoari jasotako kopuruak itzuli behar zaizkiola, bai eta dirulaguntza ordaindu zenetik hura itzuli behar dela erabakitzen den egunera bitarte edo zordunak itzulketa egiten duen arte – itzulketa egin behar duela erabaki aurretik egiten badu– dirulaguntzen arloan aplikagarriak diren berandutze-interesak itzuli behar zaizkiola xedatu ere, egokiak diren bestelako ekintzak eragotzi gabe, bat etorritik Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 40. artikuluan ezarritakoarekin.

Zenbateko horiek zuzenbide publikoko sarreratzat joko dira dagozkien lege-ondorioetarako, eta Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 46. artikuluan aurreikusitako erantzukizun-araubidea jarraituko da.

14. artikulua.– Dirua itzultzeko prozedura.

1.– Aurreko artikuluan aipatutako ez-betetzeren bat gertatzen baldin bada, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiak hasi eta ebatziko du itzultzeko prozedura, eta Enpresen eta Ekintzailetzaren zuzendariak erakunde interesdunari jakinaraziko dio itzultzeko prozedura hasi dela, eta zergatik hasi den, eta 15 eguneko epea emango dio egokitze jotzen dituen alegazioak aurkezteko. Prozedura hasten denean, eten egingo dira artean egin gabe dauden ordainketak.

2.– Alegazioak jasotakoan, edo, horrelakorik aurkeztu ez bada ere, epea igarotakoan, prozedura amaituko da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoaren zuzendari nagusiaren ebazpen baten bidez. Laguntzak itzultzeko prozedura gehienez 12 hileko epean ebatzi beharko da.

3.– Prozedurari amaiera ematen dion ebazpenak ez-betetzeren bat izan dela adierazten baldin badu, bertan deklaratu da dirulaguntza jasotzeko eskubidea galdu dela, eta ezarriko da, hala badagokio, dagozkion zenbatekoak Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoari itzultzeko betebeharra; itzultzeko epea bi hilabetekoa izango da, ebazpena jakinarazten denetik aurrera. Epe hori borondatezko alditzat joko da.

4.– Borondatezko aldi horretan dirulaguntza itzultzen ez bada, dirulaguntza berreskuratzeke premiamendu-bidera jotzeko izapideak hasiko dira.

5.– Udalerrri-talde bat denean, egin beharreko jarduera diruz lagunduen gainean dirua itzultzeko betebeharra solidarioki beteko dute.

15. artikulua.– Datu-babesari buruzko informazioa.

Datu pertsonalen babesaren arloan, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzu Publikoak bi xedapen hauen arabera jokatu du: Datuak Babesteko (EB) 2016/679 Erregelamendua eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko 3/2018 Lege Organikoa. Lortutako datu pertsonalak «Enplegurako eta enplegu-prestakuntzarako dirulaguntzak» izeneko tratamendu-jardueraren barruan egongo dira. Jarduera horren arduraduna Lanbide da, eta haren helburua da Lanbideren eskumen diren enplegu-politika aktiboekin zerikusia duten dirulaguntzak kudeatu eta kontrolatzea, bai eta iruzurra jazartzea eta datuak estatistiketarako erabiltzea ere. Lortzen diren datuak beharrezkoak dira Lanbideri emandako botere publikoak gauzatzeko eta lege-betebeharrak betetzeko, eta arlo horretan eskumena duten administrazio publikoei komunikatu ahal izango zaizkie.

Datuen titularrek datuak irispidean izateko, zuzentzeko eta ezerezteko eta informazioaren tratamendua mugatzeko eta tratamenduaren aurka egiteko eskubideak erabili ahal izango dituzte tratamenduaren arduradunaren aurrean, datuen babesaren arloko eskubideak baliatzeko prozeduraren bidez. Prozedura hori www.euskadi.eus/zerbitzuak/10842/ helbidean argitaratu da.

Hemen kontsulta daiteke datu-babesari buruzko informazio osagarri eta zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/074300-cap2-eu.shtml>.

16. artikulua.– Dirulaguntzen arloan aplikatu beharreko arauak.

Laguntza-programa honi Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legean, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren oinarrizko araudian eta lege hori garatzen duen erregelamenduan bildutakoa aplikatu behar zaio (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen).

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ESKUALDEAK

Bidasoa Beherea (Hondarribia eta Irun)
Oiartzualdea (Pasaia, Lezo, Oiartzun eta Errenteria)
Donostia / San Sebastián
Donostia mendebaldea (Usurbil, Lasarte-Oria, Andoain, Urnieta, Hernani eta Astigarraga)
Tolosaldea (Zizurkil, Altzo, Asteasu, Aduna, Larraul, Alkiza, Baliarrain, Berrobi, Bidegoian, Albiztur, Legorreta, Villabona, Hernialde, Tolosa, Alegia, Ikaztegieta, Orendain, Abaltzisketa, Amezketza, Irura, Ibarra, Leaburu, Elduain, Berastegi, Belauntza, Lizartza, Anoeta, Gaztelu eta Oresa)
Urola Erdia (Aizarnazabal, Zestoa, Azkoitia, Azpeitia)
Goierri (Gabiria, Mutiloa, Zerain, Zegama, Beasain, Ormaiztegi, Gaintza, Itsasondo, Segura, Idiazabal, Altzaga, Arama, Ordizia, Lazkao, Olaberria, Zaldibia eta Ataun)
Debagoiena (Elgeta, Bergara, Antzuola, Arrasate/Mondragón, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga eta Oñati)
Debabarena (Deba, Mutriku, Mendaro, Elgoibar, Eibar eta Soralue)
Urola Garaia (Urretxu, Zumarraga, Ezkio-Itxaso eta Legazpi).
Urola Kosta (Zumaia, Getaria, Zarautz, Orio, Aia, Errezil eta Beizama)
Vitoria-Gasteiz
Aiara Ibarra (Artziniega, Okondo, Audio/Llodio, Aiara, Amurrio eta Urduña)
Arabako Errioxa (Samaniego, Eskuernaga, Bastida, Leza, Navaridas, Guardia, Lapuebla de Labarca, Eltziego, Elvillar-Bilar, Kripan, Lantziego, Yécora/Iekora, Oion, Moreda Araba eta Mañueta)
Arabako Lautada (Arrazua-Ubarrundia, Barrundia, Burgelu, Alegria-Dulantzi, Iruraiz-Gauna, Agurain, Donemiliaga, Zalduondo eta Asparrena)
Gorbeialdea (Urkabustaiz, Zuia, Zigoitia, Legutio eta Aramaio)
Arabako Ibarak (Gaubea, Kuartango, Añana, Erriberagoitia, Lantaron, Iruña Oka, Erribera Beitia, Armiñon, Berantevilla eta Zambrana)
Arabako Mendialdea (Urizaharra, Lagran, Bernedo, Arraia-Maeztu, Harana/Valle de Arana eta Campezo/Kanpezu)
Gobela (Getxo eta Leioa)
Txorierrri (Loiu, Erandio, Sondika, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzu)
Uribealdea (Berango, Sopela, Barrika, Gorliz, Lemoiz, Maruri Jatabe; Bakio, Plentzia, Urduliz, Gatika, Laukiz, Mungia, Meñaka, Arrieta, Fruiz eta Gamiz-Fika)
Durangaldea (Iurreta, Durango, Izurtza, Mañaria, Berriz, Abadiño, Mallabia, Ermua, Zaldibar, Elorrio, Atxondo, Garai)
Busturialdea (Bermeo, Mundaka, Sukarrieta, Busturia, Errigoiti, Murueta, Forua, Gernika-Lumo, Muxika, Elantxobe, Ibarrangelu, Gauteziz-Arteaga, Kortezubi, Arratzu, Ajangiz, Ea, Ereño, Nabarniz, Mendata eta Morga)
Lea Artibai (Ispaster, Lekeitio, Mendexa, Gizaburuaga, Aulesti, Munitibar -Arbatzegi Gerrikaitz- Ziortza-Bolibar, Amoroto, Ondarroa, Berriatua, Markina-Xemein eta Etxebarria)
Enkarterri (Galdames, Gueñes, Gordexola, Sopuerta, Zalla, Trucios-Turtzioz, Artzentales, Balmaseda, Lanestosa, Karrantza Harana)
Arratia-Zornotza (Amorebieta-Etxano, Bedia, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza, Dima, Zeanuri, Otxandio eta Ubide)
Arratia-Nerbioi (Alonsotegi, Arrankudiaga, Arrigorriaga, Zaratamo, Ugao-Miraballes, Arakaldo, Zeberio eta Orozko)
Bilbao
Ezkerraldea (Muskiz, Zierbena, Abanto y Ciérvana-Zierbena, Santurtzi, Portugalete, Ortuella, Sestao, Trapagaran eta Barakaldo)
Ibaizabal (Etxebarri, Basauri eta Galdakao)

2025eko uztailaren 31, osteguna

II. ERANSKINA

AURREKONTUAREN BANAKETA LURRALDE-EREMUETAN ETA LANGABEZIA-TASEN
ARABERA, 2024KO URTARRILEKO DATUAK

Eskualdea		Udalerriak	
Bilbao	3.756.145 €	Bilbao	3.756.145 €
Ezkerraldea	2.810.873 €	Abanto y Ciérvana-Abanto Zierbena	112.163 €
		Barakaldo	1.026.560 €
		Muskiz	69.600 €
		Portugalete	460.513 €
		Trapagaran	113.035 €
		Santurtzi	555.232 €
		Ortuella	104.313 €
		Sestao	355.851 €
		Zierbena	13.606 €
Vitoria-Gasteiz	2.496.363 €	Vitoria-Gasteiz	2.496.363 €
Donostia / San Sebastian	1.182.681 €	Donostia / San Sebastian	1.182.681 €
Gobela	751.124 €	Getxo	491.737 €
		Leioa	259.387 €
Ibaizabal	734.204 €	Basauri	422.486 €
		Etxebarri	89.486 €
		Galdakao	222.232 €
Bidasoa Beherea	661.289 €	Hondarribia	96.812 €
		Irun	564.477 €
Oartzualdea	576.339 €	Lezo	40.295 €
		Oiartzun	57.913 €
		Pasaia	149.143 €
		Errenteria	328.988 €
Durangaldea	570.059 €	Abadiño	56.692 €
		Berriz	33.143 €
		Durango	215.778 €
		Elorrio	41.341 €
		Ermua	148.794 €
		Garai	1.221 €
		Izurtza	1.396 €
		Mallabia	8.373 €
		Mañaria	2.268 €
		Atxondo	5.756 €
		Zaldibar	25.817 €
		Iurreta	29.480 €

2025eko uztailaren 31, osteguna

Eskualdea		Udalerriak	
Uribealdea	491.911 €	Arrieta	2.791 €
		Bakio	20.235 €
		Barrika	9.768 €
		Berango	50.761 €
		Fruiz	4.012 €
		Gamiz-Fika	8.199 €
		Gatika	9.420 €
		Gorliz	47.621 €
		Laukiz	5.408 €
		Lemoiz	12.036 €
		Jatabe	4.884 €
		Meñaka	4.186 €
		Mungia	132.397 €
		Plentzia	34.538 €
		Sopela	104.139 €
		Urduliz	41.516 €
Donostia Mendebaldea	496.970 €	Andoain	110.942 €
		Hernani	144.782 €
		Urniet	34.538 €
		Usurbil	36.108 €
		Lasarte-Oria	129.258 €
		Astigarraga	41.342 €
Debabarrena	465.571 €	Deba	28.084 €
		Eibar	271.249 €
		Elgoibar	81.811 €
		Mutriku	31.573 €
		Soraluze	37.504 €
		Mendaro	15.350 €
Debagoiena	418.474 €	Antzuola	8.199 €
		Aretxabaleta	33.492 €
		Elgeta	4.535 €
		Eskoriatza	27.735 €
		Arrasate	194.671 €
		Oñati	54.250 €
		Leintz-Gatzaga	698 €
		Bergara	94.894 €

2025eko uztailaren 31, osteguna

Eskualdea		Udalerriak	
Busturialdea	341.199 €	Bermeo	147.225 €
		Busturia	13.606 €
		Ea	6.629 €
		Elantxobe	1.744 €
		Ereño	1.047 €
		Gautegiz Arteaga	3.140 €
		Gernika-Lumo	119.664 €
		Ibarrangelu	5.582 €
		Mendata	1.744 €
		Morga	2.617 €
		Muxika	9.245 €
		Mundaka	10.117 €
		Sukarrieta	1.744 €
		Errigoiti	2.617 €
		Forua	6.629 €
		Kortezubi	2.268 €
		Murueta	1.221 €
		Nabarniz	872 €
		Ajangiz	1.744 €
		Arratzu	1.744 €
Aiara ibarra	387.425 €	Amurrio	136.933 €
		Artziniega	22.502 €
		Aiara	18.665 €
		Laudio	194.846 €
		Okondo	8.199 €
		Urduña	6.280 €
Txorierri	362.653 €	Larrabetzu	11.687 €
		Lezama	16.920 €
		Derio	44.656 €
		Erandio	221.011 €
		Loiu	11.862 €
		Sondika	30.003 €
		Zamudio	26.514 €

2025eko uztailaren 31, osteguna

Eskualdea		Udalerriak	
Tolosaldea	331.256 €	Abaltzisketa	1.396 €
		Aduna	2.442 €
		Albiztur	349 €
		Alegia	13.606 €
		Alkiza	1.221 €
		Altzo	1.919 €
		Amezketza	4.710 €
		Anoeta	14.304 €
		Asteasu	8.547 €
		Belauntza	1.570 €
		Berastegi	4.884 €
		Berrorbi	3.314 €
		Bidania-Goiatz	2.965 €
		Zizurkil	21.805 €
		Elduain	1.396 €
		Hernialde	872 €
		Ibarra	27.910 €
		Ikaztegieta	5.233 €
		Irura	11.164 €
		Larraul	1.221 €
		Leaburu	3.314 €
		Legorreta	8.547 €
		Lizartza	5.582 €
		Orexa	698 €
		Tolosa	132.921 €
		Villabona	47.272 €
		Baliarrain	698 €
		Orendain	698 €
		Gaztelu	698 €
Enkarterri	320.090 €	Artzentales	6.977 €
		Karrantza Harana/Valle de Carranza	26.863 €
		Galdames	5.059 €
		Gordexola	12.036 €
		Gueñes	66.286 €
		Lanestosa	3.489 €
		Sopuerta	23.723 €
		Trucios-Turtzioz	4.884 €
		Balmaseda	90.707 €
		Zalla	80.066 €

2025eko uztailaren 31, osteguna

Eskualdea		Udalerriak	
Urola Kosta	249.270 €	Aia	10.641 €
		Beizama	523 €
		Getaria	13.781 €
		Orio	35.934 €
		Errezil	2.965 €
		Zarautz	122.629 €
		Zumaia	62.797 €
Arratia-Zornotza	256.597 €	Amorebieta-Etxano	139.898 €
		Arantzazu	2.268 €
		Artea	5.059 €
		Zeanuri	6.629 €
		Dima	9.420 €
		Lemoa	32.445 €
		Otxandio	7.850 €
		Ubide	872 €
		Bedia	9.768 €
		Areatza	10.466 €
		Igorre	31.922 €
Goierrri	271.423 €	Arama	698 €
		Ataun	8.547 €
		Beasain	96.987 €
		Zegama	8.199 €
		Zerain	1.221 €
		Gaintza	- €
		Gabiria	1.744 €
		Idiazabal	9.071 €
		Itsasondo	5.756 €
		Lazkao	35.760 €
		Mutiloa	523 €
		Olaberria	6.803 €
		Ormaiztegi	6.977 €
		Segura	5.233 €
		Ordizia	75.008 €
		Zaldibia	8.722 €
		Altzaga	174 €
Arratia-Nerbioi	215.255 €	Arakaldo	1.047 €
		Arrankudiaga	6.629 €
		Arrigorriaga	107.802 €
		Zeberio	7.152 €
		Ugao-Miraballes	37.155 €
		Orozko	2.965 €
		Zaratamo	15.699 €
		Alonsotegi	36.806 €
Urola Erdia	207.579 €	Aizarnazabal	5.582 €
		Azkoitia	72.740 €

2025eko uztailaren 31, osteguna

Eskualdea		Udalerriak	
		Azpeitia	98.731 €
		Zestoa	30.526 €
Urola Garaia	191.008 €	Ezkio-Itsaso	1.919 €
		Legazpi	60.878 €
		Urretxu	45.005 €
		Zumarraga	83.206 €
Lea-Artibai	156.993 €	Amoroto	2.442 €
		Munitibar -Arbatzegi Gerrikaitz-	2.442 €
		Berriatua	8.722 €
		Etxebarria	5.059 €
		Gizaburuaga	523 €
		Ispaster	2.093 €
		Lekeitio	41.342 €
		Markina-Xemein	31.050 €
		Mendexa	1.919 €
		Aulesti	4.186 €
		Ondarroa	55.645 €
		Ziortza-Bolivar	1.570 €
Arabako Lautada	118.965 €	Alegria-Dulantzi	29.305 €
		Arratzua-Ubarrundia	5.582 €
		Asparrena	11.338 €
		Barrundia	2.442 €
		Burgelu	4.012 €
		Iruraiz-Gauna	2.617 €
		Agurain	58.262 €
		San Millán/Donemiliaga	2.965 €
		Zalduondo	2.442 €

2025eko uztailaren 31, osteguna

Eskualdea		Udalerriak	
Arabako Errioxa	102.220 €	Baños de Ebro/Mañueta	2.617 €
		Kripan	1.047 €
		Eltziego	6.454 €
		Elvillar/Bilar	1.744 €
		Bastida	14.304 €
		Guardia	7.501 €
		Lantziego	4.186 €
		Lapuebla de Labarca	9.768 €
		Leza	1.570 €
		Moreda Araba	872 €
		Navaridas	1.047 €
		Oion	44.656 €
		Samaniego	2.093 €
		Villabuena de Alava/Eskuernaga	2.093 €
		Yécora/Iekora	2.268 €
Arabako Ibarrak	75.000 €	Armiñon	1.781 €
		Berantevilla	1.960 €
		Koartango	2.672 €
		Erriberagoitia	4.276 €
		Erribera Beitia	11.045 €
		Añana	178 €
		Valdegovía/Gaubea	8.373 €
		Zambrana	4.810 €
		Iruña Oka/Iruña de Oca	34.382 €
		Lantaron	5.523 €
Gorbeialdea	75.000 €	Aramaio	- €
		Zigoitia	13.959 €
		Urkabustaiz	17.508 €
		Legutio	27.208 €
		Zuia	16.325 €
Arabako Mendialdea	75.000 €	Bernedo	14.098 €
		Campezo/Kanpezu	28.759 €
		Lagran	564 €
		Arraia-Maeztu	19.737 €
		Urizaharra	6.203 €
		Harana/Valle de Arana	5.639 €
	19.148.936 €		19.148.936 €